



ATX
TEATROA



FAKIU



sinopsia

Gosea, Txizalarria, maitasuna, gorrotoa, egarria, sexua, beldurra.....eta zelan ez.... biolentzia.

Besteak beste, gure instintoetako batzuk dira hauek. Haiei esker bizirauten dugu Historiaurretik gaur egun arte.

Oinarrizko erremintak izan dira, badira eta izango dira bizitzan aurrera egiteko, animalia guztiekin partekatzen ditugun tresnak.

Ezin izango genuke bizi haietariko bat kentzen badigute, ez ginateke bete-beteak izango.

Baina EZZZZ!!! Biolentzia ez!!! gizakiok ezin dugu erabili biolentzia!!!

Eta egia da, arrazoirik gabeko biolentzia ezin da erabili,.....baina arrazoia dagoenean, eta batez be, beste biderik ez dagoenean?....zer egin genezake bizirauteko?

Antzezlan honetan hiru pertsonaia aurkezten dira, forma eta modu askotara:

Sistema, Sistema aplikatzen duena eta Sistema pairatzen duena.

Galderak dira, besterik ez.....erantzunak publikoaren esku daude





idazlea

Fredi Paia (Algorta, 1981)

Bertsolari, musikari eta etnografoa.
Egungo Bizkaiko Txapelduna. 7 aldiz
finalista 2000. urtetik. Fusioa disziplina
ezberdinekin: antzerkia (Bertso Tranpak),
musika (Hudaltzainak), literatura
(Oroimenaren lupa). Nazioarteko ahozko
inprobisazioaren ikerketa eta
esperimentazioa: Brasil, Argentina,
Uruguay (Parlamentuak gure egonaldia
Interes Nazionalekoa deklaratu zuen),
Palestina, Kurdistan, Grezia, Irlanda...

Dokumentalak, antzerki gidoiak eta iritzi artikuluak:

Akordaten naz. I & Akordaten naz II. 2008-2010.

Getxoko elizateko memoria historiko eta
etnolinguistikoaren ikusentzunezko lekukotzak.

Hartu ez nuen deia. Café Bar Bilbao antzerki
laburren lehen saria. 2012.

Fausto. Herritar eredugarri. Marlowren Fausto
antzerki lanaren Galder Perezen moldaketaren
euskararako egokitzapena. 2015. Korrika
Kulturala.

Euskaldunon Egunkaria (1999-2005), *Berria*
(2005-2011) eta *Gara* (2011-2015) egunkarien
kolaboratzaile eta iritzi zutabegile.





dramaturgia



Interpretazioa

Gure teatroan ez dugu katarsirik nahi. Beraz hasi hasieratik hiru aktore ikusiko ditugu, antzezlan aurrera doan neurrian, pertsonaia ugari gorpuztuko dituztenak.

Adierazkortasuna beti gure zutabetako bat da eta zentzu honetan aktoreen lan fisikoa, aurreko lanetan bezala (marrazki bizidunetako dinamika), kontuan hartzekoa izango da, horixe delako gure iritsiz, garunetik haratago ailegatzeko bidea.

Publikoaren hautua izango da pertsonaien errealitatea sinistea edo ez, guk distantzia mantenduko dugu une oro.....ekintza basatia, gerrillako antzerkia, pertsonaia sobredimentsionatuak, gure hesteak (ez gure intelektua) elikatze behar den guztia....

Testua

Hizkuntza erregistroari dagokionez, kaleko erregistro arrunta bilatu dugu, "Arren Ganbara eta Emeen Sotoa" aurreko antzezlanetik urrunduz.

Barrokismoa albo batera utzi eta egunerokotasuneko hizkerea hartu dugu.

Parte hartzea

Testu honek sorpresa berezia dakar ikusleentzat. Haiek izango dira obraren amaiera erabakiko dutenak. Ikuskizunak bi amaiera edukiko ditu beti prest, baina azken momentuan publikoak erabakiko du nola amaitu.

Alde batetik publikoaren parte hartze erabakiorra ekarriko du honek, eta beste alde batetik, baliteke amaiera honek amuak egiten duen bezala funtzionatzea eta publikoa beste behin etortzeko gogoarekin geratzea.





fitxa artistikoa

Idazlea	Fredi Paia
Aktoreak	Belen Cruz Sandra Fdz. Agirre Gabriel Ocina
Soinu espazioa	Edu Zallio
Musikea	Zarzaparrilla
Jantziak	Atx Teatroa
Argazkiak	Ainhoa Resano
Ikus-entzunezkoak	Marmitako Produktions
Eszenografia	Atx Teatroa
Publiko mota	15 urtetik gorakoentzat
Iraupena	65 minutu
Ekoizpena eta banaketea	Atx Teatroa
Zuzendaria	Iñaki Ziarrusta



espazio eszenikoa

Mahai bakar bat.

Hori bai, gure estiloari jarraituz, ez da ohiko mahaia izango, noski.

Forma zein erabilpenari dagokionez, aberatsa eta dinamikoa izango da; eszena bakoitzak behar duen giroa eta iradokizuna ahalik eta egokien irudikatzen duena.







kontaktua

Naia Muñoz Murua (+34) 644 618 643

Iñaki Ziarrusta (+34) 638 324 105

www.atxteatroa.com

atxteatroa@atxteatroa.com

<https://www.facebook.com/atx.teatroa>

[@atxteatroa](#)